kusitako laguntzak horren arabera tramitatu ahal izango dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzean, baliogabetuta geratuko da 2000ko ekainaren 30eko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzen programa arautzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.***– Agindu honen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 16a

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## I. ERANSKINA

### PREMIAZKO JARDUNA BEHAR DUTEN ZONA KALTETUAK

1.– Bilboko Itsasadarraren Ezkerraldea: Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Zierbena.

2.– Pasaiako Badia: Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Pasaiako Badiaren isurialdean kokatutako Donostiako barrutia.

## Zk-2869

AGINDUA, 2003ko apirilaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programa arautzen duena.

Sustapen Ekonomikoko helburuak dituzten hainbat laguntza-linea ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuak, V. Kapituluan, Turismoaren esparruko laguntzak arautzen ditu, eta bertako 32 bis artikuluan (abenduaren 26ko 279/2000 Dekretuak aur-

lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## ANEXO I

### ZONAS DESFAVORECIDAS DE ACTUACIÓN URGENTE

1.– Margen del Nervión: Abanto y Ciérvana/Abanto Zierbana, Alonsótegui, Barakaldo, Erandio, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Valle de Trápaga/Trapagaran, Zierbana.

2.– Bahía de Pasaia: Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, el territorio de Donostia-San Sebastián situado en cuenca vertiente a la Bahía de Pasaia.

## N°-2869

ORDEN de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas.

El Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, regula en el Capítulo V las líneas de ayuda en el área de Turismo, regulando en su artículo 32 bis introducido por el Decreto 279/2000, de

keztutakoa), turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programa arautzen da, eta Azken Xedapenetako Lehenengoan Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua gaitu egiten da ebatzi ditzan berau garatu eta exekutatzeko beharrezkoak diren xedapenak.

Dekretu horren menpe, 2000ko abenduaren 21eko Agindua eman zen, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programa arautzen duena, eta bertan ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresen turismoko ekipamenduak modernizatzeko inbertsio-proiektuentzako laguntzen marko orokorra zein den.

Indarrean sartu zenetik igarotako denbora-epean, oraindik ahuldadeak antzematen dira gure eskaintza turistikoan, baita ekipamenduen oinarrizko mailan ere, eta modernizatzeko behar honek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako turismo-enpresen osotasunari eragiten dionez, inbertsio-maila handiak eskatzen ez duten jarduketei lagundu nahi zaie. Gainera, jarduketok gure sektoreko jarduera-maila guztiei eragin behar diete, hau da, ostalaritzari, txikizkako bidaia-agentziei eta beste turismo-enpresa osagarriei.

Eurora egokitzeko prozesua amaituta (turismoko establezimenduetako informatika-ekipoen eraberritze teknologiko nabarmena eragin duena), ikusi egin da beharra dagoela turismoko ekipamenduak modernizatzeko prozesuaren inguruko baldintzetara era eraginkorrago batean egokitzeko aldaketak burutzeko. Horretarako, laguntzak eskuratzeko tramiteak erraztu eta ekipamendu mota gehiago zehaztu nahi da.

Modernizatzeko laguntza horiekin, lehentasunezko hiru alderdiri eragin nahi zaie: ETEen kudeaketa-lana eta hornitzaile nahiz bezeroekiko harremana errazteko informatika-aplikazio berriak sartu; bezeroaren atentzio hobe baterako saltokiak modernizatu; eta turismoko euskal ETEek eskainitako elikagaiek saltokietan duten kalitatea hobetzeko kontserbazio-sistemak instalatu.

Sartu nahi diren aldaketen aurrean, komeni da aipatutako agindua bertan behera uztea eta beste xedapen berri batek ordezkatzea, eta hartara, sartutako aldaketak era sistematiko batean artikulatu ahal izango dira.

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua*– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da turismo-enpresetan oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programaren marko orokorra garatzea, Sustapen Ekonomi-

26 de diciembre, el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas, facultándose en Disposición Final Primera al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Al amparo del citado Decreto, fue dictada la Orden de 21 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas, en la que se estableció el marco general de ayudas a los proyectos de inversión destinados a la modernización de equipamientos turísticos realizados por empresas radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el período de tiempo transcurrido desde su entrada en vigor, todavía se detectan debilidades en nuestra oferta turística, por lo que se desea insistir en la modernización de las empresas turísticas, incluso en el nivel más básico de equipamientos, y dado que esta necesidad de modernización afecta al conjunto del amplio y variado sector de empresas turísticas radicadas en la Comunidad Autónoma Vasca, se trata de seguir apoyando actuaciones que no exigen grandes niveles de inversión y que deben afectar a todos los niveles de actividad de nuestro sector, es decir, tanto al sector de hostelería como a agencias de viaje minoristas y otras empresas turísticas complementarias.

Una vez superado el proceso de adaptación al euro, que ha supuesto una importante renovación tecnológica en equipos informáticos en los establecimientos turísticos, se ha constatado la necesidad de llevar a cabo una serie de modificaciones que permitan adaptarse, de una manera más eficiente, a las circunstancias que rodean el proceso de modernización de los equipamientos turísticos, simplificando los trámites para el acceso a las ayudas y precisando más el tipo de equipamiento.

Las ayudas a la modernización quieren incidir en tres aspectos prioritarios: la incorporación de nuevas aplicaciones informáticas que faciliten la gestión de las PYMEs y su relación con proveedores y clientes; la modernización de los puntos de venta para una mejor atención al cliente; y la instalación de sistemas de conservación de alimentos que mejore la calidad final en punto de venta de los alimentos ofrecidos por la PYME turística vasca.

A la vista de las modificaciones que se pretenden introducir resulta conveniente derogar la citada orden y sustituirla por una nueva disposición que articule los cambios introducidos de una manera sistemática.

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del Programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas,

koko helburuak dituzten hainbat laguntza-linea ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.– Laguntza Programa horren arabera, diruz lagunduko dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresen turismo sektoreko oinarrizko ekipamenduak modernizatzeko inbertsio-proiektuak.

*2. artikulua–* Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak turismoaren sektoreko enpresa txiki eta ertainek (ETEak) eskuratu ahal izango dituzte.

Enpresa horiek, Batzordearen enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Gomendioan (1996ko apirilaren 3koan) ezarritako baldintzak, edo horiek ordezkatu edo aldatzen dituzten xedapenak bete behar dituzte.

2.– Edonola ere, turismo-enpresek ondorengo mota batekoak izan behar dute:

a) Turismorako hotelak, landetxeak edo kanpinak.

b) Txikizkako bidaia-agentziak.

c) Sukaldaritza-enpresak, betiere turismoa antolatzen duen 6/1994 Legearen, martxoaren 16koaren, 35. artikuluan definitutakoak.

d) Beste turismo-enpresa osagarriak, betiere turismoa antolatzen duen 6/1994 Legearen, martxoaren 16koaren, 37. artikuluan definitutakoak.

3.– a) eta c) idatz-zatietako turismo-establezimenduek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Lurralde Bulegoetan dauden Turismo Enpresen Erregistroan inskribatuta egon behar dute, betiere urteroko laguntzetarako deialdia argitaratu baino bi urte lehenago gutxienez.

4.– b) eta d) idatz-zatietako turismo-enpresek dirulaguntzaren xedea den lokalean urteroko laguntzetarako deialdia argitaratu baino bi urte lehenago gutxienez, euren jarduera burutu dutela egiaztatu beharko dute.

*3. artikulua–* Baztertutako erakundeak.

Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira erakunde eta sozietate publikoak.

*4. artikulua.–* Diruz laguntzeko inbertsioa.

Agindu honen xedeetarako, laguntzak eskuratu ditzaketen inbertsiotzat joko dira ondorengo baldintzak betetzen dituztenak:

1.– Enpresaren aktibora gehitzen direnak eta ondorengo kontzeptuetan sartzen direnak:

a) Informatika-aplikazioak. Soilik aplikazio orokor edo estandarrak onartuko dira, eta baztertu egingo dira bereziak edo neurrira egindakoak, eta ez dira inolaz ere kontuan hartuko horien berrikuspen, egokitzapen edo zuzenketak.

establecido en el artículo 32 bis del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

2.– De acuerdo con dicho Programa de ayudas, se subvencionarán los proyectos de inversión destinados a la modernización de equipamientos básicos en el sector turístico realizados por empresas radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.–* Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden las pequeñas y medianas empresas (PYME) pertenecientes al sector turístico.

Dichas empresas deberán cumplir los requisitos establecidos en la Recomendación de la Comisión de 3 de abril de 1996 sobre la definición de pequeñas y medianas empresas, o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

2.– En todo caso, las empresas turísticas deberán pertenecer a alguna de las clases siguientes:

a) Establecimientos turísticos hoteleros, casas rurales y campings.

b) Agencias de viajes minoristas.

c) Empresas de restauración definidas en el artículo 35 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo de Ordenación de Turismo.

d) Otras empresas turísticas complementarias. Entendiendo por tales las definidas en el artículo 37 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo de Ordenación de Turismo.

3.– Los establecimientos turísticos de los apartados a) y c) deberán estar inscritos en el Registro de Empresas Turísticas existente en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, con una antelación mínima de dos años a la fecha de la publicación de la convocatoria anual de ayudas.

4.– Las empresas turísticas de los apartados b) y d) deberán acreditar el ejercicio de su actividad en el local para el que solicita la subvención, con una antelación mínima de dos años a la fecha de la publicación de la convocatoria anual de ayudas.

*Articulo 3.–* Entidades excluidas.

Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente Orden, los entes y sociedades públicas.

*Artículo 4.–* Inversión subvencionable.

A los efectos de la presente Orden se consideran inversiones susceptibles de ayuda aquellas que cumplan los siguientes requisitos:

1.– Que se incorporen al activo de la empresa, y se incluyan en los siguientes conceptos:

a) Aplicaciones Informáticas. Sólo se admitirán aplicaciones genéricas o estándar, excluyéndose las específicas o realizadas a medida y, en ningún caso, los gastos de revisión, adaptación y corrección de las mismas.

b) Kutxa erregistratzaileak, salmenta puntuetako terminalak.

c) Ostalaritzako jarduerekin zuzenean lotura duten elikagaiak bero nahiz hotz kontserbatzeko sistemak: barrako erakustegiak eta elikagaiak tratatzeko gailu bereziak.

2.– Edonola ere, laguntza jasoko duten aktiboek turismo sektoreko oinarrizko ekipamenduak modernizatzeko izan behar dute, eta gutxienez 600 euroko inbertsio aitortua izan beharko dira. Aktiboen preziotzat horien balio «garbia» hartuko da, hau da, fakturatutako zenbatekoa «Balioaren Erantsiaren gaineko Zerga» kenduta.

3.– Lehenengo aldiz erabiliak izan edo funtzionamenduan sartzea.

4.– Amortizatzeko gutxienez bi urteko epea edukitzea.

5.– Gainontzeko bati lagatzeko ez izatea.

6.– Enpresa eskatzaileak fabrikatu, prestatu edo garatuak ez izatea.

7.– Laguntzaren xedea diren inbertsio-proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barnean kokatuta egotea.

8.– Inbertsio-proiektuek diru-laguntzak jaso ahal izateko, deialdiko ebazpena indarrean sartutako ekitaldian gauzatutako inbertsioak hartuko dira kontuan soilik, betiere ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 2. artikuluaren 2. idatz-zatiko 2. paragrafoan xedatzen denaren kalterik gabe.

*5. artikulua*– Laguntzak.

1.– Agindu honetan agertutako laguntzak diru-laguntza ez-itzulgarritan gauzatuko dira.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzetarako diru-laguntzaren portzentajea, aitortutako inbertsioaren %20koa izango da, eta enpresa bakoitzerako gehienez 6.015 euroko zenbatekoa hartuko da kontuan.

*6. artikulua*– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzek, Batzordearen 96/C68/06 zenbakiko Komunikazioan ezarritako Europako Batasuneko markoan, xederako minimis laguntzei edo beste jarraibide edo xedapenei buruzko minimis arauak beteko dituzte. Bertan ezartzen da onuradun berari minimis kontzeptuan esleitutako laguntza ezberdinen guztizko zenbatekoa ezingo dela 100.000 euro baino gehiagokoa izan hiru urteko epean.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzen enpresa hartzaileek ezingo dute beste laguntzarik jaso, horien izaera eta esleitzen duen Organo edo Administrazioa edozein dela ere, baldin eta Agindu honetatik jasotakoei gehituta Europako Batasunaren araudian aurreikusitako laguntzen metaketaren mugak gainditzen

b) Cajas registradoras, terminales punto de venta.

c) Sistemas de conservación de alimentos tanto en frío como en caliente directamente relacionados con las actividades hosteleras: expositores de barra, aparatos especiales de tratamiento de alimentos.

2.–En todo caso, los activos objeto de apoyo, deberán estar destinados a la modernización de equipamientos básicos en el sector turístico, y tener un importe mínimo de inversión admitida de 600 euros. Se considerará como precio de los activos su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el «Impuesto sobre el Valor Añadido.»

3.– Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez.

4.– Que tengan establecido un periodo mínimo de amortización de dos años.

5.– Que no se cedan a terceros.

6.– Que no hayan sido fabricados, realizados o desarrollados por la empresa solicitante.

7.– Los proyectos de inversión objeto de ayuda deberán localizarse dentro del Territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

8.– Los proyectos de inversión, para ser subvencionables, deberán comprender únicamente inversiones materializadas en el ejercicio correspondiente al de entrada en vigor de la resolución de convocatoria, sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo 2 del apartado 2 del artículo 2 del Decreto 121/2000, de 27 de junio.

*Artículo 5.*– Ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegrables.

2.– El porcentaje de subvención para las ayudas previstas en la presente Orden será del 20% de la inversión admitida, con un importe máximo de 6015 euros por empresa.

*Artículo 6.*– Concurrencia con otras ayudas.

1.– Las ayudas establecidas en la presente Orden, respetarán las reglas de «mínimis» establecidas en la Comunicación de la Comisión n.º 96/C68/06, relativa a las ayudas de «mínimis» u otras directrices o disposiciones emanadas al efecto en el marco de la Unión Europea, por la cual el importe total de las distintas ayudas concedidas al mismo beneficiario, en concepto de mínimis, no podrá ser superior a 100.000 euros durante un periodo de tres años.

2.– Los proyectos de inversión de las empresas que se acojan a las ayudas previstas en la presente Orden no podrán recibir otras ayudas, cualesquiera que sea su naturaleza y el Órgano o Administración que las conceda, que acumuladas a los derivados de la presente Orden, sobrepasen los límites sobre acumulación de ayu-

badituzte, eta inolaz ere ezingo dira izan Agindu honen bidez diruz lagundutako inbertsio-proiektuaren kostua baino handiagoak.

3.– Esleitutako laguntzetatik zuzenean kendu ahal izango dira beste edozein Organok edo Administraziok emandakoak, Agindu honetan xedatutakoaren arabera, diru-laguntza horien helburutzat aktibo berdinak hartzen direnean, betiere aurreko zenbakian adierazitako gehienezko mugara iristen bada.

II. KAPITULUA
PROZEDURA

7. *artikulua*– Prozeduraren hasiera.

Agindu honetan araututako laguntzetarako, urtero egingo dira deialdi publikoak eta publikotasun, lehiakortasun eta objektibotasun printzipioen arabera emango dira. Deialdia Turismo Sailburuordetzaren ebazpen bidez egingo da, eta berak ebatziko du ekitaldi horretan laguntzetara bideratutako aurrekontuaren diru-izendapena zenbatekoa izango den, baita Agindu honetan kontsumo prezioen indizearen (KPIren) arabera ezarritako eguneratzeak, eskaerak aurkezteko epe nahiz tokiak eta interesatuek eskaera-eredua eta inprimakiak lortzeko lekuak ere.

*8. artikulua.*– Eskaerak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko eskaerak eta bestelako dokumentu osagarriak, proiektuak kokalekutzat duen Lurralde Historikoko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bulegoetan aurkeztuko dira, edo urteko deialdiko Ebazpenean zehazten diren tokietan.

2.– Enpresa eskatzaileek xede horrekin prestatutako eskaera eta gainontzeko inprimakiak bete behar dituzte, eta horien artean ondorengo puntuen zinpeko aitorpena sartuko da:

a) Inbertsio bererako beste erakunde publiko nahiz pribatuetatik eskatutako edo jasotako laguntzarik ba ote duten.

b) Eskaeraren aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, enpresaren langileen guztizko kopurua 250 baino gutxiagokoa dela.

c) Eskaeraren aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, fakturazioaren kopuruak ez duela 40 milioi euro gainditzen, edo aurreko ekitaldiko abenduaren 31ko urteko balantze orokorrak ez duela 27 milioi euro gainditzen, kasuaren arabera.

Datu horiek eskaeran agertuko dira eta horien egiazkotasuna espedientearen tramitazioaren edozein unetan egiaztatu ahal izango da.

Eskatzaileak aipatutako zinpeko aitorpenean bildutako edozein daturi buruzko faltsutasunik esan badu, indarreko zigor-erregimena jasoko du, administratiboa zein penala, dagokionaren arabera.

das previstos en la normativa comunitaria, y en ningún caso podrán superar el coste del proyecto de inversión subvencionada por la presente Orden.

3.– Serán directamente deducibles de las ayudas concedidas, con base a lo dispuesto en la presente Orden, cualesquiera otras otorgadas por Órganos o Administraciones en los que se contemple la misma finalidad en cuanto a activos subvencionables, en los supuestos que se alcancen los límites máximos señalados en el número anterior.

CAPÍTULO II
PROCEDIMIENTO

*Artículo* 7.– Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas en la presente Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad. La convocatoria se realizará por resolución de la Viceconsejera de Turismo y determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada para el otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente orden conforme al índice de precios al consumo (IPC), el plazo y lugar para la presentación de solicitudes, así como los lugares donde los interesados podrán obtener un modelo de solicitud y de formularios.

*Artículo 8.*– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes y demás documentación complementaria para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden se presentarán en las correspondientes Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco del Territorio Histórico donde se ubique el proyecto, o en los lugares especificados en la Resolución de convocatoria anual.

2.– Las empresas solicitantes deberán cumplimentar la solicitud y demás formularios previstos a tal fin, entre los que se incluirá una declaración jurada de los siguientes extremos:

a) Ayudas solicitadas o percibidas de otras instituciones públicas o privadas para la misma inversión.

b) Que su plantilla total existente a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud, es inferior a 250 trabajadores.

c) Que la cifra de facturación a 31 de diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud, no supera los 40 millones de euros, o que la cifra de su balance general anual a 31 de diciembre del ejercicio anterior a la solicitud no supera los 27 millones de euros, según el caso.

Estos datos aparecen recogidos en la solicitud y su veracidad podrá comprobarse en cualquier momento de la tramitación del expediente.

Si el solicitante falseara cualquiera de los datos incluidos en la declaración jurada anteriormente mencionada, se verá sometido al régimen sancionador administrativo y penal, según proceda.

3.– Enpresa eskatzaileek ondorengo dokumentuak eman beharko dituzte:

a) Pertsona eskatzailearen ordezkaritza-ahalordearen fotokopia eta eratze-eskrituraren nahiz geroago edukitako aldaketen eta legozkiekeen erregistro-inskripzioen fotokopia.

b) Eskatzailearen pertsona juridikoaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia edo eskatzailearen NANaren fotokopia.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan edukitako alta eta bajen ziurtagiria.

d) Hirugarrenaren Alta Dokumentua.

e) Eskaeraren xedea den inbertsio-proiektuan sartutako aktiboen behin betiko jatorrizko fakturak edo fotokopiak.

f) Ogasun eta Finantza sailburuordearen 1991eko urriaren 7ko Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura eskuratutako dirulaguntzen onuradunen obligazioak betetzea egiaztatzeari buruzkoan, edo ordezkatzen duen araudian jasotako kasuak gertatzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, betiere eskatzailearen berariazko baimenarekin, zerga gaietako organo eskumendunei zuzenean eskatuko die eskatzaileek euren zerga-obligazioak betetzen dituztela ziurtatzeko egiaztagiriak igor ditzatela. Espedientean interesatuen aipatutako berariazko baimena agertzen ez bada, interesatuek eman beharko dute dagokion egiaztagiria.

Puntu honetako a), b) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa azken bi ekitaldietan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari laguntzarik eskatu ez dioten enpresek aurkeztu beharko dute soilik, edota aurkeztuta badute ere, horietan aldaketaren bat gertatu denean. Hori guztia, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 35. artikuluko f) idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.

*9. artikulua.*– Akatsen zuzenketa.

Dagokion Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoak, aurkeztutako dokumentazioan akats edo zehaztasun faltaren bat antzematen badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta horrek 10 eguneko epea izango du zuzentzeko. Hala eginten ez badu, bere eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta beraz, epe hori konponketa egin gabe amaituta, ebazpen bat emango da uko egin duela adieraziz, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. eta 71.1. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.– Las empresas solicitantes deberán adjuntar la documentación siguiente:

a) Fotocopia del poder de representación de la persona solicitante y de la escritura de constitución con sus posteriores modificaciones e inscripción en los registros que corresponda.

b) Fotocopia de la tarjeta de identificación fiscal de la persona jurídica o fotocopia del D.N.I. del solicitante.

c) Certificado de altas y bajas del Impuesto de Actividades Económicas.

d) Documento de Alta de Tercero.

e) Facturas definitivas originales o fotocopias de los activos incluidos en el proyecto de inversión objeto de solicitud.

f) Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi siempre que cuente con la autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de la certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones. En el supuesto de que no constara en el expediente la citada autorización expresa de los interesados, éstos deberán aportar el correspondiente certificado.

La documentación recogida en las letras a), b) y d) de este punto deberá ser presentada por aquellas empresas que, en los dos últimos ejercicios, no hayan solicitado ayudas al Departamento de Industria, Comercio y Turismo o que habiéndolas presentado estos documentos hayan experimentado alguna modificación. Todo ello, sin perjuicio de lo dispuesto en apartado f), del artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 9.*– Subsanación.

En caso de que la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo correspondiente advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud en la documentación presentada, lo comunicará a las empresas solicitantes, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se dictará resolución declarando el desistimiento, de conformidad con lo establecido en los artículos 42 y 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*10. artikulua.–* Eskaeren azterketa eta ebaluazioa.

1.– Aurkeztutako eskaeren azterketa eta ebaluazioa Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoari dagokio. Bulego horrek eskatzaileari, eskaera bakoitza behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkoa iruditzen zaion dokumentazio eta/edo informazio osagarria eskatu ahal izango dio.

2.– Eskaera bakoitza aztertu eta ebaluatu ondoren, Turismoa Sustatzeko zuzendariari ebazpen proposamen bat luzatuko dio diru-laguntza eman edo atzera botatzeari buruz berariaz ebazpena emanez, eta adieraziz, dagokionean, onartutako inbertsioaren zenbatekoa eta kopurua.

*11. artikulua.–* Diru-laguntzari buruzko ebazpena eta ordainketa.

1.– Turismoa Sustatzeko zuzendariak, aurreko artikuluan aipatutako proposamena ikusita, eskaerak ebatziko ditu ordenan eta espedientea osatuta dagoenean.

Ebazpen hori eman eta interesatuari jakinarazi beharko zaio, dagokion deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik hasi eta 6 hilabeteko epean.

2.– Eskatzaileei laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinaraztearen kalterik gabe, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa argitaratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Ordenatzaileei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen 49.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Emango den Ebazpenak ez du bide administratiboa agortuko, eta gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Turismo sailburuordearen aurrean, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epean eta moduan.

4.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesatuari ezer jakinarazi gabe ebazpena emateko aurreikusitako epea agortu bada, eskatutako laguntza atzera bota dela ulertu behar da.

5.– Edonola ere, luzatzen den ebazpenean dagokion diru-laguntza finkatuko da eta ordaintzeari ekingo zaio, betiere Agindu honetako 13.a) artikuluan ezarritako epea igaro ondoren.

6.– Ordainketa tramitatzen den datan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura diru-laguntzen onuradunek zerga-obligazioak bete dituztenaren egiaztapenari buruzko Ogasun eta Finantzen sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan, edo bere ordez ezarritako araudian jasotako kasuak gertatzen di-

*Artículo 10.–* Análisis y Evaluación de las solicitudes.

1.– Corresponderá a la Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, la cual podrá requerir al solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y la evaluación de cada una de ellas.

2.– Analizada y evaluada cada solicitud elevará propuesta de resolución al Director de promoción Turística, con pronunciamiento expreso sobre la concesión o denegación de la subvención solicitada e indicando en su caso, la cuantía, así como el importe de la inversión aprobada.

*Artículo 11.–* Resolución y Pago de la subvención.

1.– El Director de Promoción Turística, a la vista de la propuesta mencionada en el artículo anterior, resolverá las solicitudes ordenadamente y en función del momento en que el expediente esté completo.

La citada resolución deberá dictarse y ser notificada al interesado en un plazo máximo de 6 meses contado desde el día siguiente a la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Sin perjuicio de la notificación individual a las empresas solicitantes de las resoluciones de concesión de ayuda, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de los beneficiarios e importe de subvención concedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

3.– La Resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Turismo, en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

4.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar la resolución sin que ésta se haya notificado al interesado o interesada, podrá entenderse desestimada la ayuda solicitada.

5.– En todo caso, la resolución que se emita fijará la subvención correspondiente y se procederá al pago una vez transcurrido el plazo establecido en el artículo 13.a) de la presente Orden.

6.– En la fecha en que se tramite el pago, cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Au-

renean, egiaztatze hori Agindu honetako 8. artikuluaren 3. idatz-zatiaren g) puntuan zehaztutako moduan egingo da.

*12. artikulua.–* Laguntzak kudeatzeko organoa.

Turismoa Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio Agindu honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-lana egitea, Agindu honetan beste organo batzuei berariaz esleitu zaizkien gaietan izan ezik.

*13. artikulua.–* Enpresa onuradunaren betebeharrak.

Onuradunek ondorengo betebeharrak dituzte:

a.– Emandako diru-laguntza onartzea. Zentzu horretan, diru-laguntza eman zaionaren jakinarazpena jasotzen den unetik hamabost eguneko epea igarota enpresa onuradunak espresuki eta idatziz uko egiten ez badio, diru-laguntza hori onartu duela ulertuko da.

b.– Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, jasotako laguntzekiko euren zereginak betez, eskatzen dioten informazio guztia aurkeztea.

c.– Helburu berberarekin, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotako diru-laguntzak edo laguntzak, sarrerak edo baliabideak eskuratu dituela jakinaraztea.

d.– Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

e.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Ordenatzaileei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean eta Sustapen Ekonomikoko helburuak dituzten hainbat laguntza-linea ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuan agertutako betebeharrak.

*14. artikulua.–* Ikuskapena.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak egoki ikusten dituen ikuskapenak eta egiaztapenak burutuko ditu diru-laguntza jasotako proiektuaren garapen eta exekuzioari buruz, eta onuradunek, eskatzen zaien informazio osagarria eman beharko dute. Ikuskapenean egiaztatuko da batez ere aurkeztutako fakturetan agertutako aktiboak fisikoki establezimenduan daudela, eta aurkeztutako fakturak ordainduak izan direla.

XEDAPEN GEHIGARRIA

*Bakarra.–* Tramitazio telematikorako prozedura bat sortzen bada, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 45. ar-

tónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la referida acreditación se realizará en la forma establecida en el punto g) del apartado 3 del artículo 8 de la presente Orden.

*Artículo 12.–* Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción Turística la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden, salvo en aquellas cuestiones asignadas específicamente a otros órganos en la presente Orden.

*Artículo 13.–* Obligaciones de la empresa beneficiaria.

Los beneficiarios están obligados a:

a.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención a la empresa beneficiaria ésta no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b.– Facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, así como por la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones respecto a las ayudas percibidas.

c.– Comunicar la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

d.– Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

e.– Así como las demás obligaciones contenidas en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

*Artículo 14.–* Inspección.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo realizará las inspecciones y comprobaciones que estime oportunas en relación con el desarrollo y ejecución de los proyectos subvencionados, debiendo aportar los beneficiarios cuanta información complementaria les sea solicitada. Fundamentalmente en la inspección se verificará que los activos que figuran en las facturas presentadas correspondan a los activos físicamente existentes en el establecimiento y que las facturas presentadas han sido abonadas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

*Única.–* En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática, de conformidad

tikuluan ezarritakoaren arabera, berau arautzeko araudia argitaratzen denean, Agindu honetan aurreikusitako laguntzak horren arabera tramitatu ahal izango dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzean, baliogabetuta geratuko da 2000ko abenduaren 21eko Agindua, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, turismo-enpresen oinarrizko ekipamenduak modernizatzen laguntzeko programa arautzeari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.***– Agindu honen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 16a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

con lo establecido en el artículo 45 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, una vez publicada la norma que lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

DISPOSICION DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 21 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de apoyo a la modernización de equipamientos básicos en empresas turísticas

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso-contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## Zk-2870

AGINDUA, 2003ko apirilaren 16koa, euskal turismoko azpisektoreetan Kalitate eta Bikaintasun Ziurtagiria sustatzen duten ekimenei laguntzeko programa ezartzen duena.

Kalitatea da, ezagutza eta lankidetzarekin batera, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak prestatutako Ekonomi Sustapenerako Erakunde arteko Planak ezinbestekotzat jotzen dituen hiru estrategiak turismoko euskal enpresek lehiakortasuna lor dezaten. Hala, kalitatearen aldeko politikek bilatzen dutena da erakunde ezberdinek eskainitakoa eta eskaini nahi dutena bat etortzea, eta bi puntu horiek, bezeroek espero duten zerbitzuari erantzutea osoki. Hartara, kalitatea hobekuntza-konpromiso bihurtzen da, eta bezeroen beharrizan eta espektatibetara egokitzeko etengabeko gainditzejoera adierazten du.

Enpresen kudeaketaren hobekuntza etengabearen bidez, bezeroak eta enpresako pertsonak, jabe nahiz langile, asetzea lortzen da, eta hori da, hain zuzen, ingurumenarekiko errespetu eta erantzukizun sozialarekin batera, «Kudeaketa Bikaintasuna» deritzan luzerako helburua.

## N°-2870

ORDEN de 16 de abril de 2003, por el que se establece el programa de apoyo a las iniciativas que promuevan la certificación de la calidad y la excelencia en la gestión en los subsectores turísticos vascos.

La calidad junto al conocimiento y la cooperación son las tres estrategias que el Plan Interinstitucional de Promoción Económica, elaborado por del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, considera como esenciales para el logro de la competitividad de las empresas turísticas vascas. Así las políticas de calidad persiguen que lo que las organizaciones ofrecen coincida totalmente con lo que las mismas pretenden y que ambas cosas se traduzcan en un servicio que de respuesta a lo que esperan sus clientes. La calidad se convierte así en un compromiso permanente de mejora y expresa una tendencia hacia la superación constante para adaptarse a la evolución de las necesidades y expectativas de los clientes.

La mejora continua en la gestión de las empresas para lograr la satisfacción de los clientes junto con la de las personas, propietarios y empleados de la misma, así como el respeto al medio ambiente y la responsabilidad social configuran el horizonte a largo plazo que se denomina como «la Excelencia en la Gestión».